**ERREPORTAJEA** KANPOTARRAK AUZOLANEAN ELGOIBARREN · **GEHIGARRIA** KILIBARREN · **KULTURA**
ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XV. FOLKLORE JAIALDIA UZTAILAREN 24an IZANGO DA KIROLDEGIAN

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko uztailaren 20a/VIII. urtea/372. zkia



KANPOTAR GAZTEAK ETORRI DIRA ELGOIBARRERA AUZOLANAK EGITERA

# Helburua Moruko ondare historikoa garbitzea da



# SANTA KLARA BISTA EDERREKO ETXEBIZITZA-ZONALDEA

**NE1NOR Donostia**
**Tolosa Hiribidea 21, 2. ezk.**
**943 31 75 11**

**SANTA KLARAN ERAIKITZERA GOAZ:**
***ETXEBIZITZAK ETA DUPLEXAK, TRASTELEKU ETA GARAJEEKIN.**
**DENAK TERRAZA HANDI ETA EGUZKITSUEKIN** (HEGOALDERA BEGIRA).

**NEINOR Elgoibar**
**Santa Ana, 16 behea**
**943 74 73 16**

BEGIBISTAKOA DA GAUR EGUNGO GARAGARTZAK EZ DUELA ZERIKUSI HANDIRIK DUELA 15 EDO 20 URTE INGURUKOAREKIN. GAUR EGUN GARAI HA1ETAN BAINO ASKOZ ERE JENDE GUTXIAGO BIZI DA BERTAN. 1983K0 ETA 1988K0 UHOLDE 1KARAGARRIEK ERAGINA IZAN ZUTEN GARAGARTZAREN "ODOLUSTE" HORRETAN ETA AURREZ BERTAN KOKATURIK ZEUDEN TAILERREN (AZPIAZU FUNDIZIOA, LARRAÑAGA FUNDIZIOA...) BEHERAKADAREN PROZESUA AZELERATU ZUTEN. DUELA URTE GUTXI, TABERNA, DENDA, ESKOLA ETA TAILERREK EMATEN ZIOTEN BIZIA BAINA GAUR EGUN ISILTASUNARI LEKUA EGIN ZAIO. KILIMON ERREKA BIDERATZEKO LANAK ASPAIDI AMAITU ZIREN ETA URTEAK D1RA UREK GAINEZKA EGIN EZ DUTELA, BAINA ARAZOAK JARRAITZEN DU. EUSKO JAURLARITZAK D1RUZ LAGUNDUTAKO IZARTU PROGRAMAREKIN MENDAROKO UDALAK GARAGARTZA BIZIBERRITZEKO PLANA GARATU DU ETA 2001-2005 URTEETAN AURRERA ERAMANGO DA. PLAN HONEN BERRI JAKITEKO, ANTON ZUBIAURREREK1N, UDALEKO ARDURADUNAREKIN, HITZ EGIN DUGU.

# IZARTU PROGRAZ

# GARAGARTZA BERR

## "kartu plana Eusko Jaurlaritzah 2000-2005 epeaklian ia 450 Milid

ANTO

Anton Zubiaurrek esan digunez, "bi dirulaguntza mota ematen dituzte, hata zonalde kaltetuentzat, %75eko finantziazioa, eta bestelakoentzat, %50ekoa. Mendaro Gipuzkoa barruan zonalde kaltetua moduan kontsideratuta dago eta lehen motako diruiaguntzak jasoko ditu. Garagartza auzoa biziberritzea garrantzitsua zela pentsatu genuen, aspaldiko urteetan gainbehera dijoala ikusi genuelako eta horren inguruko proiektu batzuk aurkeztu genituen". (Ikus taula).



ANTON ZUB
Udaleko Hirigintza

Aurkeztutako proeiktuen artean garrantzitsuenak azaltzeko eskatu diogu Antoni: "Alde batetik, Mendaron telezentro deiturikoa sortzekotan gabiltza eta onartua dago, gainera. Honen bidez, Udalak herrian kokatu nahi luketen iniziatiba profesionalei bulego erabilera emateko gelak prestatuko lizkieke Garagartzan, proiektu profesional hauei hasiera erraztuz".

### IZARTU PROGRAMA

| | |
|---|---|
| **1. Ingurune produktihoa eta enpiegua ..........** | **75.000.000** pta. |
| 1.1. Mendaron telezentrua sortzea. ................. | 75.000.000 pta. |
| **2. Oinarrizko azpiegitura lokalak .................** | **328.562.092** pta. |
| **2.1.** Informazio teknologiak aplikai2ea(Interneten) ... | 85.317.860 pta. |
| 2.2 LIr horniketa eta saneamendua Garagartzan . | 95.000.000 pta. |
| 2.3. Garagartzako argi sarearen hobetzea.......... | 20.244.232 pta. |
| **2.4.** Mojetako kapila antzoki bihurtzea .......... | 121000.000 pta. |
| **3. Giza baliahideak Eta gizarte integrazioa .......** | **35.000.000** pta. |
| **3.1.** Etxez-etxeko laguntza zerbitzua eratzea . . . | 20.000.000 pta. |
| **3.2.** Lanbide berrietarako heziketa programa ... | 15.000.000 pta. |
| **4. Bestelakoak ................................................** | **8 734.559** pta. |
| **4.1.** Laguntza teknikoa ................................ | 8 734.559 pta. |
| GUZT1RA ...................................................... | **447.296.651** pta. |

AHOLKU.. ii.
Zulagailu sakonak S
Autonemia, 1 174 posta kutxabla • Tel. eta Faxa: 943 74 32 54
Pnobila: 800 520 508 - 20870 ELCOMAR

MAKINAK NEURRIRA
LAN1131
MANIPULAZIOA eta MUNTAIA - IVIAKINA BEREZIA
BRUÑIDORAK • KONTROL DINIENTSIONALA
414;.44,;¡mx.4143,uel
Donostia-Bilbo Errep. 53. km.
20870 **MENDARO**
**Tel:** 943 75 50 00
Faxa: 943 75 51 62
E-maila: lanbi@lanbi.COM
http://www.lanbi.com

KitaRRen

2001 ko uztailaren 20a/V111. urfea/76*zkia*

## Gaur, ostirala, amaitu dira leikek" antolatutako udaleku irekiak

### Uztailaren 2an hasi ziren eta 73 umek hartu dute parte

Aurtengo uztailean ere, "In leike"-ko begirale taldeak antolatuta, umeentzako udaleku irekiak izan dira, hilaren 2tik 20ra arte.



73 umek hartu dute parte. Txikienek 2 eta 6 urte bitartekoek, egunero izan dituzte ekitaldiak, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:30ak arte. Helduagoek, 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek, martitzenetan, eguenetan eta barixakuetan irten dira udaleku irekietara, 10:00etatik 13:OOra arte.

Egunpasa estrainekoz

Aurten egun pasa bat *egin* duten lehendabiziko aldia izan da. Uztailaren I2an Debabarrena hobeto ezagutzen pasa zuten eguna: Goizean, Mendaroko txokolate goxoak dastatu, Arbileko kobazuloa eta Lasturko errotak bisitatu eta arratsa1dean, Mutrikuko portuan eta hondartzan bainua hartu eta uretako motoetan, piraguetan eta arrainuntzi batean ibili ziren.

## Gaur, uztailak 20, inauguratu da udaletxe berria

### Eraikin berria Herriko Enparantzan dago eta hiru solairu ditu

Amaitu dira Mendaroko udaletxe berriaren eraikuntza lanak. 2000. urteko ekainaren amaiera aldera jarri zuten eraikin berriaren lehen harria. Udaletxea Ana Ezeiza Agirre eta Roberto Garzia Azpiri arkitektoek diseinatu dute.



Herriko Enparantzan kokatutako Udalak hiru solairu eta 1.500 $m^2$ -ko azalera erabilgarria du. Beheko solairuan posta zerbitzua eta epaitegiaz gain, etorkizunean sortzeko asmoa dagoen telebistarako platoa eta beharrezkoak diren gelak kokatuko dira. Lehen solairuan, osoko bileretarako aretoa eta liburutegia daude. Bigarren solairuan, berriz, alkatetza, arki tektu eta aparejadoreen gela, idazkaritza, administrazioa, interbentorearen gela eta hauei dagozkien egongelak aurki ditzakegu. Hirugarrenean, funtzio desberdinak beteko dituzten gelak (herritarren bilerak...), gizarte-laguntzailearen gela eta dinamizatzaile kulturalaren gela daude.

**KilisaRRen Kolaboratzalleak:** Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro. Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

## Santana A.1><Akk

UZTAILAK 24, martitzena
19:00 Salbea
Ondoren, kalejira erraldoi eta buruhandiekin, "Bizi-poza" txarangak alaituta.
23:30 Dantzaldia "Lisker" taldearekin.
1:00 "Los cinco bilbainos" taldearen emanaldia.
Ondoren, dantzaldia "Lisker" taldearekin.

SANTIXO EGUNA
UZTAILAK 25, eguaztena
9:00 Kalejira
12:00 Meza
17:30 Pilota profesionala: Titin III-Goñi III /Etxaniz-Elkoro
19:30 Kalejira Debako Musika Bandarekin.
22:30 Nagusien danborrada, Debako Musika Bandarekin.
24:30 Dantzaldia "Egan" taldearekin.

SANTANA EGUNA
UZTAILAK 26, eguena
10:30 Prozesioa
11:00 Meza
14:30 Bazkaria Arboletan
18:00 Herri Kirolak frontoian
22:30 Kalejira, "Bizi-poza" txarangarekin.

KOADRILEN EGUNA
UZTAILAK 28, zapatua
11:30 Poteoa trikitilariekin.
13:00 Paella lehiaketaren hasiera.
14:30 Paella jana frontoian.
17:00-1:00: "Benji jumping" go masaltoa.
19:00 Sokamuturra Garagartzan.
23:00 Su artifizialak
23:30 Diskoteka nagusientzat
1:00 Play-back lehiaketa
Ondoren, diskoteka goizaldera arte.
6:30- 8:00 Txokolatada, Luzaiden.

UMEEM EGUNA
UZTAILAK 29, **domekia**
**9:00** Kalejira txistulariekin.
12:00 Umeen danborrada 'Btzi-poza' txarangarekin.
17:00 Umeentzako ikuskizuna frontoian
19:00 Sokamuturra Garagartzan
22:30 Kalejira "Bizi-poza" txarangarekin.

# Sargoateko erromeria

***UZTAILAK 25, EGUAZTENA-***



## Egitasmoa

***11:30*** *Meza*
***12:00*** *Salda eta txorizoa*
*12:30 Bertsolariak* ziaxaa~
*Trikitilariak* ifiedr
*14:00 Erromeriaren amaiera*

**ANTOLATZAILEAK** SALLOBENTEKO JAI BATZORDEA • MORKAIKO • ELGOIBARKO IZARRA • DEBEMEN • UDALA



## Euskadiko Soinu Zaharrak dantza txapelketan hartu dute parte 12 eta 15 urte arteko Elgoiharko 17 neskak

Inazio Bereziartua Musika Eskolako 17 dantzarik Gipuzkoako Euskal Dantzarien biltzarrak antolatutako Euskadiko Soinu Zaharrak dantza txapelketan hartu dute parte 12 eta 15 urte artekoen mailan. Karen Baztarrika, Miren Beltza, Eneritz Gonzalez, Amaia Grrotxategi, Maite Landaburu, Maria Maguregi, Tania Sanz, Olatz Urbizu, Amaia Zubiaurre, Leire Apellaniz, Saioa De Pedro, Ainhoa Arebalo, Ainhoa Uribeetxeberria, Iraitz Solabarrieta, Arritxu Zialtzeta, Jone Loiola eta Cristina Conde dira dantzariak. Horietatik lau, Eneritz Gonzalez, Amaia Gorrotxategi, Olatz Urbizu eta Arritxu Zialtzeta, hain zuze ere finalera iritsi dira eta Eneritz Gonzalezek 3. postua eskuratu du. Partehartzaileen maila altua eta emaitzak ikusita txalotzekoa da egin duten lana.

## Atzerritarrak Elgoihartik San Ferminetara

San Fermin jaiek agur esan zuten arren, Iruileko festetako irudi bitxi horietako bat topatu genuen joan den astean Elgoibarren. Lan kontuak zirela-eta Elgoibarrera etorri eta bidaia San Ferrninetara joateko aprobetxatu zuten bi lagun hauek. Amerikarra da bata eta ingelesa bestea, beraien txapel eta janzkera ikusi besterik ez dago atzerritarrak direla antzemateko. Dirudienez aurrez ere izanak dira inoiz San Ferminetan.



FA EK
X ileapaindegia
L solariuma
Abuztuaren 4ra arte zabafik
Errosario, 35 behea • Tel: 943 74 26 92

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea 20600 EIBAR

ilarSiano
San Franizisko, 14 TeL 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Anchilstegui
Sanyfer
ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA
Olaso induslrialdea
Olasope, 5 - 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

2001 -VII-20

## Udalak eta Euskaltelek hainbat leku zehaztu dituzte telefono mobilen antenak jartzeko

### Ballegoitxi inguruan eta San Pedrora bidean daude leku hauek

Telefono mobilen antenek azkenaldian sortu dituzten kezkak direla-eta, azterketa bat egin ostean, Elgoibarren Udalak eta Euskaltelek hainbat leku posible zehaztu dituzte antenak ipintzeko. Tokirik egokienak Ballegoitxi inguruan eta Salbador-Buruko deposito ondoan (San Pedrora bidean) daude eta hortik kanpo ipiniz gero, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu bertatik kentzeko, edo lekuz aldatzeko. Dena den, Arriaga auzoan (Netto merkatalgunetik gertu) ere zehaztu omen du antenak ipintzeko beste kokaleku bat.

**Arriskurik ez**

Udaletik jakinarazi digutenez, "Telekomunikazio Ingeniarien Eskola Ofizialeko datuen arabera, telefono mugikorren komunikazioa bideratzen duten uhin elektromagnetikoak ez dira kaltegarriak osasunarentzat. Kalteak eragiteko maila batetik gora egon beharko liratekeelako eta telekomunikazioetarako erabiltzen direnak hortik beherakoak dira".



*Arriaga auzoa, Netto merkatalgunearen gaineko aldea ere beste kokaleku posibleetako bat da.*

**Telefono linearekin arazoak asteartean**

Joan den astearte arratsaldean gertatutako telefono aberiak buruhauste ugari eragin zituen herrian. Telefonicako prentsa kabinetetik adierazi digutenez, trenbide inguruan egiten ari diren obra batzuetako makinak fibra optikoko kable bat eta beste kable urbano bat apurtu zituen eta horrek eragin zuen aheria. Elgoibarren ezezik Arrasaten, Azpeitian eta Ermuan ere izan zuten arazorik. Hala ere, asteazken goizaldeko 3:OOetarako konponduta zegoen parte bat, eta gainontzeko kalteak etxeetan banan-banan konpontzen saiatuko omen dira.

## Saharako lau ume etorri dira Eigoibarrera bertako famdiekin oporrak pasatzera

### Uztailaren 6an iritsi ziren eta bi hilabetez egongo dira

AE zken udetan bezala, aurten ere Saharatik 4 ume etorri dira Elgoibarrera, hiru aurrez egondakoak eta aurten lehen bisita egin duena bestea. Bi hilabete inguru pasako dituzte hiru mutikok eta neskatila batek, Elgoibarko hiru familiarekin, desertuko egoera gogorretatik aparte. Uztailaren 6an iritsi ziren ume saharauiarrak, eta Mohamedek, Abdalak, Aichiatuk eta Mohamedek bi hilabete pasako dituzte gure artean. Sumara Magbes eta Aoserd herrietatik etorri dira, eta hemen klima freskoagoa, janari hobeak eta ura omen dira aurkitzen dituzten gauzarik preziatuenak. Bestalde, osasun arazoekin etortzen dira Saharatik umeak, desertuko ondarra eta eguzkia direla-eta belarrietan eta begietan izaten dituzte arazoak. Beraz, hemen sendatzen saiatzen dira. Hasieran gogorra izan arren, bigarren urtez ere hartu dituzte Elgoibarko bi etxetan eta esperientzia oso aberasgarria dela esan digute. Aichiatuk esaterako, uretan eta hondartzan ibiltzea omen du oso gustuko. Gure artean igarotzen dituzten egun hauetan ahalik eta ondoen pasatzea espem dugu.

*1)Abdala eta Mohamed iazko familiakoarekin 2) Mohamed, lau saharauietatik txikiena. 3) Aiehiatt4 ezkerreko neskatila.*







# ala Osasunean adituak

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**Kemen** Belardenda (Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, rrakroblotika, yoga)

................................ San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

......................... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda (Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Inforrna zatez)

................................ San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

......................... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

....................... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

................................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, ko ntaktologia, audiometria)

....................... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

................................ Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

....................... San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

......................... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

........................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

....................... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Irlaki Rivero**

...................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

............................ Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

CID .5 .S n

## EGUZKIA HARTU BAINA KONTUZ

Udan beharrezkoa da eguzkiak gugan duen eragina kontutan hartzea, bere ondorioak aurrikusteko.

Melaninak jartzen gaitu beltzaran. Melanina gure zelulek eguzkitik babesteko sortzen duten pigmentua da. Gorputzak ohikoak baino eguzki izpi gehiago jasotzen dituela sumatzean piskanaka sortzen da melanina, eta horrela ipintzen gara moreno.

***EGUZKIA HARTZEKO AHOLKUAK***

*Denbora-tartea:* Epe laburrean, baina sarri. Maiatzetik uda bukatu artean, eguzkiak gogor jotzen ez duenean.

*Krema:* Azala oso sentibera denean edo eguzkitan denbora luzez egon behar bagara bakarrik.

***KALTEAK***

Bi ordu luzez udako eguzki galdatan egonez gero, inolako prestaketa gabe, erredura horietatik ateratzen garenerako gorputzak melanina sortuta izango du, urgentziazko neurri moduan, baina beltzaran ipintzea garesti ordainduko dugu horrela eginez gero.

*Ondorioak:*

Minbizia, azala zahartzea, azaleko mantxak, larrua ezkamatzea.

***NORK IBILI BEHAR DU KONTUZ?***

Azal zuridunak, orbandunak eta sistema inmunitarioa asaldatuta dutenak batez ere.

Bada jendea belztea zaila duen azala daukana, baina horregatik ez du buruhausterik edukt behar.

***ELIKADURA***

Mineral eta bitaminadun janariak hartuz eta elikagai orekatuak eta era askotakoak janez gero, errazago hartuko dugu kolorea.

Beraz, gozatu udaz eta eguzkiaz, baina kontuz!

KEMEN belardenda

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

2001-VII-20

### Telefono mugikorran antenak kokatieko lekuak aukeratu dira Elgolbarren

# INPORTA AL ZAIZU ETXE ONDOAN TELEFONO MOBILEN ANTENA JARTZEA?



### CRISTINA GABILONDO

**35 urte, garbitzailea**

Ez jata inporta, modernidadia beti dao ondo. Ez gera telefono mobiletik txintxilik egoten eta hondak botatzen baditxue ere, neurrixa hartzia da kontua.

### JOSE MANUEL PEREZ

**39 urte, rnodelista**

Inportako litzaidake, osasunarentzat kaltegarria omen da-eta. Niregatik balitz, hobe mendian jarriko balute. Bilbon kendu egin omen dute bat, kalteak eragin dituelako.





### CAMILO GONZALEZ

**25 urte, injinerua**

Bai, inportako litzaidake. Probatuta ez egon arren, baliteke kaltegarriak izatea, eta diruaren truke ere ez nuke ipiniko.

### CRISTINO GALA

**44 urte, igeltseroa**

Ez litzaidake axolako. Ni antenak jartzen ibili izan naiz eta ez dut uste osasunarentzat txarrak direnik, horiek esamesak baino ez dira.





### MARI JOSE GONZALEZ

**35 urte, enpresaria**

Bai, beharrezkoa izan arren, inori ez zaio gustatzen horrelako antenak inguruan izatea, are gutxiago eragiten dituzten kalteei buruzko gauzak entzunda.

### ISABEL AMEZTOY

**76 urte, etxekoandrea**

Bai. Bizilagunok hitz egin izan dugu inoiz gai horri buruz, eta ez jartzea erabaki zen. Beraz, denon artean erabakitakoa onartu beharko nuke nik ere.




- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN %i OEKO BEHERAPENA

471 adoTt, 16

e"pt azotaye"a e

Tel: 943 74 10 11

# hartuta



**NEUS CASADEVALL,** Vic
18 urte

## "Kataluiniatik atera eta leku berriak ezagutzea gogoko nuen, eta auzolandegira etortzea oporrak pasatzeko modu ekonomikoa iruditu zitzaidan"

Neus Casadevall 18 urteko kataluiniarrarentzat auzolandegi batera etortzen den lehen aldia da. Nora joan berdin zitzaiola aitortu digu, "libre neuzkan egunen arabera aukeratu nuen destinoa, eta Euskal Herria ezagutzen ez nuenez...".

Gaztelera praktikatzeko balio dio egonaldiak, katalanez bakarrik hitz egiten baitu ingurukoekin. "Besteekin elkarbizitzen eta gauzak gehiago baloratzen ikasten da eta leku ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera paregabea da, nahiz eta etxean baino erraztasun gutxiagorekin bizi beharra dagoen".

Lana ez zaio gogorra iruditzen, baina beste modu batera imajinatzen zuen, "horrenbeste belar beharrean, lur gehiago

## "Auzolandegietako gauzarik onena, leku desberdinetako jendea ezagutzeko aukera da"

egongo zela espero nuen eta baita beste modu bateko lantresnak erabiliko genituela ere. Atapuerca eta horrelakoak dituzu buruan eta pintzelak edo antzerako tresnekin ibiliko zarela uste izan arren

**MORUKO PARKE TEMATIKOA**

Ez da Altamiran ireki berri duten kobazuloen replika bezain ikusgarria izango, baina Elgoibarko Udalak parke tematiko txiki bat eraikitzeko asmoa du Moruko aztarnekin. Proiektu honek 3 fase izango ditu. Lehen fasea ondare historikoa dagoen zonaldea garbitzea izango da. Iaz hasi ziren eta auzolandegian lan egitera etortzen diren gazteek burutuko dute garbiketa lan hau

## Proiektu honek 3 fase izango ditu. Lehen fasea ondare historikoa dagoen zonaldea garbitzea izango da

2005. urterako amaitzea espero dute. Bigarren fasean parke tematiko txiki bat eraikitzea nahi dute. Fase honetan, herrixka berreskuratzeari ekingo diote, hau da, bere garaian izango zuen itxura berbera errekuperatzen saiatuko lirateke adituak. Hirugarren eta azken fasean, berriz, zentru didaktiko bat eraikitzeko asmoa dago. Bertan, garai hartako bizimoduaren berri emango luketen ikusentzunezkoak eskainiko dira. Zentru honek gai honen inguruko tailerrak ere hartuko lituzke.



**BRUNO LOPEZ, Albacete**
**19** urte

## "Elgoibarren senideak ditut eta beraiek bisitatzeko aprobetxatuko dut egonaldia"

Bruno Lopez Albacetekoa da eta Euskal Herriko berdetasunak atentzioa deitu dio. Jendea ezagutu eta lagun berriak egiteko etorri dela Moruko auzolandegira esan digu, "oso ondo hitz egin zidaten auzolandegietaz eta etortzea gomendatu zidaten. Historia ikasketak burutzen ari da Bruno, eta egiten ari diren lanek nolabaiteko zerikusia dute ikasketekin. Bestalde, lana ez dela gogorra uste du, "goizez

## "Historia ikasten ari naiz eta ian hau ikasketekin zerikusia duelako gustatzen zait"

bakarrik egiten dugu lan eta arratsalde eta asteburuetan leku berriak ezagutzeko aukera daukagu. Gainera monitoreak gidari izatea abantaila da, inguruak hobeto ezagutzen baitituzte". Auzolandegietako gauzarik onena eta aldi berean txarrena jendea dela aitortu digu, "oso jende majoa ezagutu dezakezu, hau da normalena, gerta daiteke norbaitekin ez ondo konpontzea ere, baina hori leku guztietan gertatzen da".

# Oporretan atxurra eta pal:

***San Pedro Bailaran dagoen Moru mendian burdin aroko herrixka baten aztarnak aurkitu zituzten Aranzadi Zientzi Elkarteko kideek 60. hamarkadan. Gipuzkoon aurkitu diren burdin aroko 3 herrbdcetako bat da Morukoa. Burdin aroa burdinaren lanketa zabaldu zeneko historiaurreko aroa da eta kristo aurreko iehen milurtekoa harizen du. Gure arbasoek leku estrategikoo delako eraiki zuten harresiz inguratutako herrixka Morun, bailararen sarreran dagoelako eta defendatzeko leku oso aproposa delako. Gaur egun harresi haien aztarnak ikus daitezke, baina zati batzuk lurpean daude. Burdin aroko ondare historiko hau berreskuratzeko Espainia guztitik etorritako 17 neska-mutil ari dira lanean Moruko auzolandegian. Beraiengana jo dugu zertan ari diren jakiteko eta zuei azalizeko.***

**AUZOLANDEGIAN LANEAN**

Atxurra eta pala hartuta Ianean aurkitu ditugu auzolandegiko kideak Moru mendiaren inguruetan, talde txikietan banatuta lan egiten baiute. Guztira 17 neska-mutil, 3 monitore eta arkeologian aditu bat etorri dira leben txanda honetan. Uztailaren 16tik 30era bitartean egongo dira Elgoibarren. Hurrengo taldea abuztuan etorriko da. 18 eta 22 urte bitartean dituzte eta Espainiako bazter guztietako ordezkariak daude: Tenerife, A Coruña, Kataluinia, Jaen, Albacete, Bizkaia, Araba... Herri Eskolan egiten dute lo eta baita bazkaldu ere. Moruraino, berriz, autobusean igotzen dira. Mikel

## Estatutik etorritako 17 neska-mutilen eta 3 monitoreren artean Moru garbituko dute uztailaren 30era bitartean

Iraundegi donostiar monitoreak eta Iratxe Salegi debarrak azaldu digute nolakoa den egun normal bat auzolandegian. "Goizeko 9:OOetan hasten gara lanean eta eguerdiko 13:30etan bukatzen dugu. Auzolandegietan dena ez da lana, ordea eta arratsaldeak aisialdirako aprobetxatzen ditugu. Batez ere, monitoreok antolatutako ekintzak egiten ditugu, hondartzara edo igerilekura joan, inguruko herriak ezagutu, e.a." azaldu digu Mikelek.. Etorri aurretik burdin aroko harresi batean lan egitera zetozela bazekitela aipatu digute. "Ikusten ez diren harresi zatiak eta dolmenak berreskuratzea da gure lana, hau da, zonaldea garbitu eta harresiak ahalik eta gehien bistaratzea, ondoren indusketak edo eskabazioak egin ahal ditzaten. Garbiketa lana da gurea, zuloak egitea galerazita daukagu", esan digu Iratxek. Biek aipatu digute talde lana dela auzolandegietako positiboena, "Esfortzua elkarrekin egiteak batu egiten du eta lanean zauden bitartean jendea ezagutzen duzu".



# kexa k

## CZ3 tlIDEEM

• Herritar batek azkenaldian Elgoibarren uraren kalitatea asko jaitsi dela uste du, Ondorioz, Udalera honako galdera hau luzatzeko eskatu digu: Zer nahastu diote urari horrelako gustu txarra edukitzeko? Guk Udaleko ur arduradunari argibideak eskatu dizkiogu eta hona hemen esan diguna: "Urari ez zaio ezer berezirik bota. Beti bezala, kloroa gehitu zaio baina araudiak ezartzen duen kantitate berdinean, hori guztia mekanizatua baitago".

• Emakume talde bat kezkatuta azaldu zaigu piszinan sokorristen eskasia dagoela-eta: "Urte sasoi honetan haur eta gaztetxo ugari dabil igerilekuan. Monitoreek ikastaroak eman behar izaten dituzte baina hauek kurtsiloetan dauden bitartean, piszinan dauden gainontzekoak begiralerik gabe egoten dira. Zergatik ez dago beste sokorristarik denbora pasa joaten direnak zaintzeko?".

Udal Kirol Patronatutik honako hau erantzun digute: " Denbora pasa joaten direnak ere, sokorrista horiengatik zainduak izaten dira. Ikastaroa ematen egon arren, ez dute deskuidatzen igerilekuan dagoen jendea. Orain arte ez dugu beharrezkoa ikusi beste sokorristarik ipintzerik baina proposamena aztertuko dugu".

## 14). XRIx

♦ Santa Ana kaleko bizilagun batek deitu digu kale honetan jasan behar dituzten arriskuetaz ohartarazteko. "Aste honetan bertan auto batek ume bati hanka harrapatu dio. Ez dago espaloirik eta portaletik atera bezain pronto, autoekin topo egiten dugu. Asko gainera, belozidadean pasatzen dira. Aparkatu ere, nahi duten lekuan aparkatzen dute. Arriskutsua dago".



# alkatea banintz

## Elgoibarren bada zer hobetua!



Hasteko, herriko zirkulazioa hobetzeko zerbait egingo nuke, batez ere erdigunekoa. Oinezkoak ibiltzeko moduan hakarrik jarriko nitozke erdiko kaleak. Izan ere, ume txikiak ditugunok batez ere. ezin gara ia kalean ihili ere egin, ezta ero.ketak egiten ere, autoak direla eta arriskua handia haita. Bestaide, berdeguneak ere ipiniko nitazte haurrentzako jolaslekuren hatekin. Leku-Eder esaterako, polita dago, zuhanzekin, helarrarekin. baina ez dago gune ludikorik. 5.1adalan ere jar daitezke jolaserako liburuak. edo antzeko zerbait, prefahrikatuak, adihidez.

PAKI LUCHA



2001-VII-20

## IRITSI DIRA OPORM BARREVera

Urtero bezala, garai honetan, oporrak hartuko ditugu BARRENen. Abuztuaren 23an SAN BARTOLOME JAIETAKO ZENBAKI BEREZIA eskuartean izango duzue. Iraileko lehenengo alea berriz, hilaren 7koa, jaiei eskainiko diogu. San Bartolonaetan ateratako erretratuekin eta bitxikeriekin kaleratutako ale berezia izango da. Ondo pasa oporrak lantaldearen partez.

**Gogorarazi nahi dizuegu oporretako bidaian ateratzen dituzuen argazkiak erredakziora ekar ditzakezuela. Horrela, irailean BARRENen agertzeko aukera izango duzu. Mesedez, iraileko lehen egunetan ekarri.*

## BARRENen IRIZPIDEAZ

Gutun honen bidez, Elgoibarko Gurutze Gorriko boluntariook, BARREN aldizkariak gure egoerarekiko izan duen irizpideaz dugun kexa azaldu nahi genuke.

Jakina denez, irailean, urgentziei erantzuteko dugun anbulantzia, ibilgailu mota honi buruz dagoen legedia jarraituz, jubilatu beharrean gaude. Beraz, Elgoibarren 13 urtez bete dugun zerbitzu hau arriskuan dago.

Hau dela eta, Elgoibarko Gurutze Gorriak, anbulantzia berria erosteko kanpaina jarri zuen martxan. Honen bidez, BBVko kontu bat jartzen zen elgoibartarren esku dirua sar zezaten anbulantzia berria erosteko dirua lortzeko asmoz. Kanpaina hau martxan jartzen zuen informazioa EI Diario Vasco eta BARRENera bidali **zen.**

Elgoibarko Gurutze Gorriko boluntariook, BARRENek albiste honi eman dion garrantziaz kexu gara. Albiste hau ez zen ia ikusten eta ez zuen behar bezalako isla izan, gaiak duen urgentzia eta garrantzia ikusirik. Era berean, BARRENek gure erakundearekiko duen jarrera eta irizpidea salatu nahi genuke, ez baita hau estraineko aldia eta boluntariook erreta gaude dagoeneko jarrera honekin.

**Mikel Lizarralde Picaza eta**
**Gurutze Gorriko beste 35 boluntario**

# Urruzunoren begi ezkutua



Sargoria. Ibaia lehor, euliak eta gasolina putzuak urazalean, bi arratoi Iikatsu larrutan asun tartean. Hurbil, eskriara zaharretan behera bi mutiko, raketa banarekin. Haurrak Txankakua zubian, -han, han dua pelotia!- eta ama baten errieta Kepari usuak ez ikutzeko ze usuak zikinak dia, usuak kaka dia, eta etortzeko kerizpetara eta egoteko -geldi behingoz- koño. Etxekoandreen mannarra, Bar Iturriren kanpoaldean: Pues el pues mira que eI mio tambia...! Plazaren erdian, udaltzain garai bat bikote gazte bati imintzioka. One world, one life, one love kamisetak soinean; mutilak mapa zimurtu bat irekita, neskaren esku bat mutilaren short-en atzeko poltsikoan. Trenaren txistu ozena. Negarrak bizikleta erori baten ondotik. Gizon zahar bat elizaurrean eserita, alkandora erdi askatuta, Morkaikora begira; udaletxe parean beste agure bat: oliba koloreko bisaia eta bisera, Miss Agente Especial onespenez behatuz. Elizpeko arkupeetan neska taldea txutxumutxuka, begi ameslariekin, eta indibiduo bat Joyce-ren Ulises irakurtzen. Kanpai hots lehorra aire lehonean.

**Ion Garate**


ASTEKARIA

**BaRRen**

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
tr 943 74 41 12
Publizitatea:
fr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
banen@topagunea.com
Helbide inforrnatikoa:
www.topagunea.comlbarren
ARGITARATzAILEA
Elgonbartro Izarra

„ ELGOIBARK0 ,

LAourrrzouLfA Elgoibarko Udala ZISZENDARA **Eli** Aizpuru KAzETAAJAK I rati Agirreazaldogi, ASier Orbea Piniuzrrma Andoilz Agirregomezkorta MAKErATZAJLEA Bea Ansol AmuRsranioa Amaia Rodrigez GERENMAJDZI Peli KoLARDRAnAILEAK Amaia Lariz, Unai Argarale, EgulkiimAranberri, Loma Perez de Albeniz, Jokin Marlinez, Aitor Zabaleta, Leire Urkidi, Otga Unzilla, Montse Arregi, Juanilo Gorosfiza, Iker Maguregi, Jon Gunutxaga, JOR Eagi, Ainhoa Andonegl, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.1. AZALEKO ESALDIA Golzon Garale INPHIMATEGIA eertu Koop. E. TIRADA 4.000 ate LEGE GORDAILUA E3-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udarak, Eusko Jaurlarazako Kubura Sailak eta Fora Aldundiak diruz lagundulako aldizkaria.*



41³ kutxa
n, ecker

1DANOBAT
gr.

G 0 111
GRUPO OPOORAT

LITABTA



## Uda gorria

Aurtengo uda joan zen urtekoa baino lasaiagoa izango ote den galdetu nion ostiralean lagun bati. Asteburuan gertatutakoak itxaropen apurra zapuztu du, eta gorputzaldi txarra laga digu.

Ekintza militarren aurrean, herritar gehienek berriz erakutsi dute intsumisoak direla, ez daudela prest "amen" esan eta beste alde batera begiratzeko.

Arazo politiko larria dago hemen. Irtenbide politikoa behar du, baina hori ez da aitzakia hilketak edo beste edozein giza eskubideren zapalketa onartzeko. Edozein eskubide, eta edonorenak.

Hauteskundeek erakutsi zuten gehiengoa burujabetzaren alde dagoela. Egunero ekiten

C) dio herriak eraikuntza nazionalari, ez dio mugarik jartzen, are gehiago, bide berriak zabaltzeko irrikitan dago, baina ez bonbak eta pistolak tartean

rn daudela. Joandako astean hiru pertsona hil zituzten. Ederki gaude hori bada nazio eraikuntzara garaman bidea!

O Ibarretxek esan du bere lehenengo helburua bakea dela, eta ahalegin guztiak egingo dituela lortzeko. Ausarta izan dadila eskatuko nioke, eta ez

O dezala inor baztertu. Handik eta hemendik kolpe gogorrak jasota ere, 600.000 boto lortzeko gai izan zen. Babes handia ematen dio horrek, beldurrik gabe apustua egiteko modukoa. Bakeak merezi du arriskua hartzea. Herri honek merezi du bakea.

Aitor Zabaleta



# Morboaz gaixoturik

Eguzkiak bortizki gaztigatzen gaitu zenbaitetan, eta beroaren pasioak bahitzen gaitu sasoi honetan. Horrek gure gorputza biluztera garamatza: baina, gutxiengoa da hondartzan naturalki bainujantzia kentzen duena.

Plazerra pekatu izan da gure gizartean. Eta debeku guztiek bezala, horrek trastornatu egin gaitu. Jokaera horrek sexualizatu du gure mundu guztia, eta errepresio sozialak mentalki eszitatu gaitu. Gehienontzat morbosoa da gorputza biluztea, eta gure genitalak obsesio sexualaren fetitxeak besterik ez dira. Errepresioak gaixoak ernaltzen ditu.

Dena den, bada hori guztia pikutara bota duenik, eta nudismoa praktikatzen duenik. Gizarteak baldintzatzen gaituena gainditzen jakin dute, eta gorputza naturaren osagarritzat jo dute, besterik gabe. Gorputza sentitzeko modu aske, natural eta egoki bat izatea da beraien pekatu bakarra. Nire miresmena dute.

Amaia Lariz

1110.1r 11r

KeXak ........................................................ 5

1110tZ MOtZ ............................................... 10

gehigarria ................................................ 13

kiROlAk ..................................................... 20

aGenda ..................................................... 24

UZEKIE

=TZEKO PLANA

**bulizatutako programa da.**
**ii emango dizitio Mendarori"**

ZUBIAURRE Udaleko Hirigintza arduraduna.



URRE
arduraduna.

Herritarrengan interneten erabilera bultzatu nahi da: "dirulaguntzak onartu dira, administrazioarekiko harremanak internet bitartez bideratzeko helburuarekin, eta era berean anbulatorioarekin edo Mendaroko Ospitalarekin. Era berean, Garagartzako saneamendu, ur edangarri eta argi sarea zaharkituta daudenez, hauek berritzeko asmoa ere badaukagu eta kultur arloari dagokionean, mojetako komentuko kapila be rritu eta antzoki multifuntzional bat prestatzen ari gara, Mendaron antola daitekeen eta aterpea eskatzen duen edozein ekitaldi kulturali erantzun egokia emango diola pentsatzen dugu. Hasiera batean 200-205 eserlekurekin hornituta egongo litzateke'", laIdu digu Udaleko arduradunak.

Proiektu hauek guztiak 2001-2005 urteetan aratzea da asmoa.

# GARAI ZAHARRAK
## *gogoan Garagartza kalean*

*Garai zailak bizi dituzte aspaldian Garagartza aldean bizirik dirauten jatetve nahiz komertzioek. Jendeak ez du errekaren ur maila noiz igoko edo ez zain gelditzeko intentziorik eta alde egin du baina komertzianteek, iraungo badute behintzat, bizilagunak behar dituzte. Gaur egun Maurzio Maiora eta Anton Albizu Garagartzan zabalik dauden komertzio bakarren jabeak dira eta beraiekin egoera larri honi buruz hitz egin nahi izan dugu.*



**"Nik ondo ikusten det udaletxlak egoera honi hueltia emateko ahal dabana eitxia"**

**Mailrizio Maiora**

"27 urte daramaz nik hemen eta argi dauana da lehen hemen, Garagartzan, askoz jende gehixao bizi zala. Baina gero, ufalak ziala-eta jende askok alde egin zaban. Harrezkero, hemengo jendian mubimientua asko bajau da. Bestaldeko kalian zenbaitx etxek daken egoeria ikusi besterik ez dago, erruinan daudela ematen dabe. Nik ondo ikusten det udaletxian partetik ahai dabena eitxia, honi bueltia emateko".



**"Garagartian mugimendua egotia nahi bada, jendia baitzera etortzia derrigorrezkua da"**

**Anton Albizo**

"Lehenengo aitxan anaixa eon zan hamen karnixeixiakin, gero aitxa eta ni duela 19 urte etorri nintzan. Lehen beste giro bat zauan hemen, 83ko ufal haundixa eta gero, 88kua zala-ta, jendia hemendik juten hasi zan eta orduzkero beherutz eta beherutz jun da hau. Gero konsultia, eskolak,... danak kendu zitxuen eta Garagartza ixa ezer gabe gelditxu zan. Bertako egoeriaz aparte, denda txikixok gaur egunian zentro komertzial haundixekin burrukarik eitxerik ez dakagu eta ez dakitx hau zer izango dan. Garagartzan zeozer eitxekuak diala entzun det baina geldi ikusten det nik hori. Hemen mugimendua egotia nahi bada, jendia bizitzera etortzia derrigorrezkua da".


**Mendaroko TAXIA**

Kontxi Urain

✆ 607 57 57 28

**LANDA**
**ERRETEGIA**

**BEREZITASUNAK**
Legatza champagne erara
Ganba eta intxaur pudding-a
Etxeko postreak

*Paial* ruzdel fia~«

Garagarza, 32 . MENDARO ✆ 943 75 60 28





Ale honetako erretratuan 1983ko oporretako uholdeak gogorarazi nahi ditugu. Santi Mendikutek laga dizkigu. Abuztuaren 26an ikaragarrizko ufalak izan ziren eta Mendaro ere, jakina, harrapatu zuen. Begira nolako panorama, errekak gainezka egin eta aurrean harrapatutako guztia eraman zuen. Estazio kalea ere urak hartu zuen, herriko beste hainbat leku bezala. Eskumako argazkian, erreka-barrengo etxearen aurrean agertzen direnak Ana. Mendikute eta Mertxe Arriola dira.

Maria Angeles



Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 75 50 86



ARRATS

Zelaikoa plaza,2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

# informazioa

## EuskoTren

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donosda .vo,ilk 5.45 06.45— 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
• jaiegunetaa 7.45ean hasiko dira

BIEBO-DONOSTIA
Egunero
0600 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
taiegunetan 8 00etan Instko dira

## Euskorren

ALTOBLSAK

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOEBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgobar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan
Eigothar 08.25 09.25 10 25 ., 21 25

## PES,

AUTOBUSAK

***PESA** autobusetako informazio lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora.* ***TeL 902 101 210.***

## Farmaziak-okindegia

### UZTAILA

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 21 | Etxeberria (Sonto Ana kalean | Etxeberria |
| 22 | Etxeberria (Sanin Ana kelean) | Etxeberria |
| 23 | Fernandez | Fernandez |
| 24 | Bidasolo | Bidasolo |
| 25 | Zabaleta | Zabaleta |
| 26 | Fernandez | Fernandez |
| 27 | Yudego | Yudego |
| 28 | Etxeberria* tSanta Ano kalearg | Zabaleta |
| 29 | Etxeberria' (scinto Ana kulearg | Zabaleta |
| 30 | Etxeberria (Santa Ana kolean) | Etxeberria |
| 31 | Bidasolo | Bidasolo |

ESCA1A, Rekalde, I Soroiaze Tel: 943 75 16 38
FEANANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagurza. Tel 943 75 61 42
ZABALETA, Kdebarren, 9 Soroluze Tel 943 75 13 84

OKINDEG1A
**22 igandea** Eizagirre
25 igandea Fotero
31 igandea Idarraga

### ABUZTUA

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 1 | Yudego | Yudego |
| 2 | Etxeberria (Errasaria koleanl | Etxeberria |
| 3 | Zabaleto | Zabaleta |
| 4 | Yudego | Yudego |
| 5 | Yudego | Yudego |
| 6 | Zabaleta | Zabaleta |
| 7 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 8 | Zabaleta | Zabaleta |
| 9 | Yudego | Yudego |
| 10 | Etxeberria (Efrasario kalean) | Etxeberria |
| 1 1 | Etxeberria (Errosario kolean) | Zabaleta |
| **12** | Etxeberria lErresaria kalean) | Zabaleta |
| 13 | Yudego | Yudego |
| 14 | Zobaleta | Zabaleta |
| 15 | Yudego | Yudego |
| 16 | Escala | Escala |
| 17 | Yudego | Yudego |
| 18 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 19 | Etxeberria (Errosario kalearg | Etxeberria |
| 20 | Escala | Escala |
| 21 | Yudego | Yudego |
| 22 | Escala | Escala |
| 23 | Etxeberria (Errosario kplean) | Etxeberria |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**
Anbulatorioa . . 943 03 26 10
Planning-a . 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 94374 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
G 1Jrutze Gorria . 943 74 38 64
Mendaroko Ospdalea. 943 03 28 00
Odol Emaileak 943 74 39 36

**GARRA1OAK**
Eusko Trenbideak. . 943 74 04 42
PESA (Eibar) . 902 10 12 10
Taxi geltokia . . . 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbitzua. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Inala.. 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua . 943 74 10 08
Udaletxea ......... 943 74 10 50
Udaltzaingoa . . 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra . 943 74 16 26
Kiroldegia......... 943 74 44 15
Kontsurno Bulegoa . . 943 74 30 88
Liburutegia. .. 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ......... 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea ......... 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

**ADINEKOEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia . . 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola . 943 74 21 41
11H1 (EPA) . . 943 74 08 80
Herri Eskola . . . 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
1 nstitutua
Arreiturre 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
I kastola .......... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAI**
BARREN .......... 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia .. 943 74 34 74
Egunkaria............. 943 30 02 28
Gara ................. 943 31 69 99

*fon Osorok 32 urte ditu, eta dagoeneko bost urte daramaiza ardŕ txakur txapelketetcrn parte hartzen. Elgoibarlar gazte hau Euskal Herriko onenetarikoa da galnera, eta aurten ere Gipuzkoako finalean izango da bere "Pinbco" txakurrarekin.. Abuztuaren 5ean jokatuko da finala Aian, eta hemengo lau onenak Euskal Herriko bcapelketara pasatuko dlra. lioneka gain, Euskal Herritik kanpo ere, askotan ibili dela aipatu digu, eta gehlenetan podium-era igolzea lortu omen du.*



# "Ardi txakur txapelketetan inprobisazioa da nagusi"

**• Zaila izan al da Gipuzkoako finalerako sailkatzea?**

Bi kanporaketa izan ditugu, bata Urrestillan eta bestea, Zumaian. Bakoitzean zazpi txakur lehiatu ziren, eta lau onenak Gipuzkoako finala jokatuko dute. Zumaiako kanporaketa oso gogorra izan zen, txakurrek izugarrizko maila erakutsi zuten, eta edozeinek irabaz zezakeen. Azkenean ni izan nintzen irabazle eta oso gustura amaitu nuen.

■ Zertan datza honelako txapelketa bat?

Txakurraren obedientzia neurtzen da. Zirkuito bat dago markatuta, eta txakurra bertatik atera gabe iritsi behar da bukaeraraino, jabearen aginduak jarraituz. Ondoren, artaldea gidatu behar du txakurrak, hau da, ardiak jaso eta denak batera markatuta dauden puntu batzutara eraman, ate batetik pasatu eta azkenik, borobil batean sartu eta bertatik atera. Ez da erraza. Txakurra ona izateaz gain, ardiek ere zerikusi handia dute.

**"Aurten Euskal lierriko Txapelketa Elgolhappen izango da, eta ilusio handia egingo lidake etxean ipahazteak"**

■ Zein txakur arraza da lehiaketarako onena?

Zalantzarik gabe "Border Collie" izeneko txakurra. Ingelesa da, baina euskal txakurra baino hobea da lehiaketarako. Arazo handiak izan ditugu arraza kontua dela eta. Hasieran denok euskal txakurrarekin aritzen ginen, eta ez zegoen arazorik. Gerora ordea, Oñatiko txapelketan frantsesak Border Colliekin parte hartzen zuten, eta izugarrizko diferentzia zegoen. Adibide bezala, esan daiteke euskal txakurra 20tik bakarra ateratzen dela ona, eta Border Colliea 20tik bakarra txarra. Orain, bi txapelketa paralelo ditugu Euskal Herrian, bata euskal txakurrekin egiten dena, eta bestea, geurea. Gure txakelketan bi arrazak onartzen ditugu, baina bestean euskal txakurrarekin soilik har daiteke parte.

• Lan handia al da txakurrei aginduak betetzen erakustea?

lzugarrizko lana da. Lehiaketan parte hartzeko lau hilabete inguru behar dira txakurrari ondo erakusteko. Etxerako txakurra baldin bada, hilabete batekin nahikoa izaten da. Nik orain 16 txakur dauzkat. Txakurrak hezi eta saldu egiten ditut, edo norbaitek nahi badu, txakurkumeak ere saltzen ditut. Diferentzia ikaragarria dago txakur batetik bestera. Nahiz eta arraza berekoak izan, jokabide oso desberdina daukate. Txakur bakoitza ondo ezagutu behar da, eta desberdin hitz egin behar zaie. Askotan txakurren psikologo bihurtu behar da.

• Euskal Herriko txapelketari begira, zein da zure helburua?

Lehenengo eta behin txapelketan parte hartzeko sailkatu, eta gero ahal bada irabazi. Aurten gainera EIgoibarren izango da, eta etxean irabazteak ilusio handia egingo zidan. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako txakur onenak etorriko dira, eta maila oso altua daukate. Bizkaian duela gutxi hasi dira Border Colliekin lanean, baina Gipuzkoan eta Nafarroan izugarrizko txakurrak daude. Ez da erraza txapela irabaztea. Iaz ni izan nintzen azkena parte hartzen, eta txapela neure buruan ikusten nuen. Azkenean, txakurrari ardiak bizkor ateratzeko esan nion, eta hantxe galdu nuen puntua. Askotan urduri jartzen naiz, eta nik galtzen dut txapelketa. Lehiaketa ezin da etxetik prestatuta eraman, inprobisazioa da nagusi eta lasaitasuna ezinbestekoa da.

### XV. Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 24an

# Burundiko eta Eslobakiako dantzariek hartuko dute parte Haritz Dantzari Taldekoekin batera

*Datorren asteartean, hilaren 24an, XV. aldiz egingo da Nazioarteko Folklore loŕaldŕa Elgoibarren. Haritz Euskai Dantzari Taldeak antolatuta, gaueko 22:30ean hasiko da Olaizaga Kiroldegian. Haritzekoekin batera Burundiko eta Eslobakiako dantzariak izango dira jaialdiko protagonistak.*

Ezpata-dantzarekin ekingo diote Elgoibarko dantzariek saioari. Horretarako Juan Antonio Urbeltzek Zortziko ikuskizunerako prestatu zuen ereduari jarraituko diote. Ondoren, Erreberentzia, Zapi-dantza eta Uztai-txiki dantza eskainiko dituzte. Lehen zatia amaitzeko, esku-dantza egingo dute, Gipuzkoako Soka-dantzen tradizioan oinarrituz Urbeltzek prestatutako koreografia batekin. Haritz Dantzari Taldeak erromeria giroan bukatuko du saioa Arratiako jotarekin. Ohiko musikariez gain, Ibon Koteron albokaria eta Asier Elorriaga panderojolea arituko dira jaialdian.

**Batimbo Burundi**

Izenak berak argi erakusten duen moduan Burunditik, Afrikatik dator talde hau eta danbor ikuskizun ederra eskainiko dute Elgoibarren. Aintzina Burundin objetu sakratuak ziren danborrak, erritoetarako erabiltzen zirenak. Gaur egun musika herrikoiaren isla dira eta bertako jaietan jotzen dute.

**Turiec**

Eslobakiako Turiec eskualdeko Martin hirian du egoitza dantza konpainia honek. 1954an sortu zen eta gaur egun Martin hiriko unibertsitateko ikasleek eta inguruko lantegietako langileek, 50 guztira, osatzen dute taldea. Eslobakiako dantzak, tradizioak eta ohitura erlijiosoak berreskuratu eta moldatu ostean, taula gainera eraman dituzte. Beraien maila artistiko altua nazioarteko jaialdi askotan erakutsitakoak dira.

Beraz, dantza, folklorea eta beste herrialde batzuetako ohiturak gustuko dituenak aukera paregabea du martitzenean.





# Ander Sanchezek irabazi du jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa

·Ir

jrtero egin ohi da jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta jadanik jakitera eman dute zeinena den kartel irabazlea. Ander Sanchez 17 urteko gazte elgoibartarrak egin du Soka-dantza izenez bataiatu duen irudia, "argazki bat hartu naban eta lehenengo haren marrazkixa in. Gero ordenadorera pasau eta retokiak in nizkion", esan digu Anderrek. Ez omen da jaietako kartel lehiaketan lanen bat aukeztu duen lehen aldia izan oraingoa, "bi edo hiru urtetan txikixen mailan presentau ditxut kartelak, eta haundixenian lehenengo urtian irabaztia sorpresa bat izan da,




gainera lan dexente aurkeztu diala uste dot". Ez da itxuraz geldi egotekoa Ander. Izan ere, hasi omen da datorren urterako lehiaketarako zerbait pentsatzen, "hasieran beste idea bat nakan, eta uste dot datorren urterako balio leikela". Bestalde, Peio Ezkurraren kalian gora kalianbehera lanak aipamen berezia jaso du. Haurrek taldeka zein bakarka egindako lanak ere aurkeztu dituzte, eta umeen kategorian guztira sei sari emango dituzte. Sariak San Bartolome egunean banatuko dira Udaletxean.

**"Datorren urteko kartela itxeko dagoeneko idea bat badakat boruan"**

**Ander Sanchez**



## RAMON MUJIHA Udal Kirol Patronatuko zuzendaria

# "Mintxetako igerilekuak uztailaren bukaera baino lehen amaitzea espero dut"

• Noiz zabalduko dira Mintxetako igerilekuak?

Langileak uztailaren bukaera baino lehen amaitzeko ahaleginak egiten ari dira. Depurazio sistema jartzea falta zaie, baina filtrazio sistema jarrita dago eta azulejoa jartzen hasiak dira. Bizkor ari dira lanean, lau hilabeteko epea zuten lanak amaitzeko eta epe hori abuztu bukaeran amaitzen bada ere uztailerako bukatzen ahalegintzen ari dira. Eguraldia eta azken orduko arazo txikiak izan daitezke oztopo bakarrak.

E Beraz, abuztua hasi baino lehen irekitzea da zuen asmoa?

Bai, batez ere, abuztuan Elgoibarren geratuko diren herritarrengan pentsatuz. Goizeko 10.00etan ireki eta arratsaldeko 21.00ak bitartean zabalduko dira, etenik gabe. Sarrera doan izango da lehenengo udan. Dena den, igerilekuak probisionalki irekitzea nahi dugu, lan guztiak datorren urtean amaituko lirateke. Beraz, erabiltzaileek ez dituzte guztiz bukatutakoan izango dituzten erraztasun eta eskaintza denak izango. Deserosotasun hauek dira doan izateko beste arrazoi bat.

▪ Zer botako dute faltan abuztuan Mintxetara hurbiltzen direnek?

Printzipioz igerilekuak erabiltzeko moduan izango dira, baina datorren urterako aldagela batzuk, taberna moduko bat eta haurrentzako jolas parke bat eraikitzeko asmoa dugu. Belarra ere ez da egoerarik onenean izango eta agian jendeak etxetik eraman beharko ditu jarlekuak.

▪ **Udal Kirol Patronatuak izango al du Mintxetako igerilekuaren ardura?**

Bai, eta Patronatuko bazkideek Mintxetako igerilekua erabiltzeko eskubidea izango dute, oraindik gauzak guztiz zehazteke baldin badaude ere.

a **Zer neurri izango dute?**

Bi igerileku izango dira eta bien artean 1.000 m3 edukiko dituzte. Handienak zirkulu itxura izango du. Sakonerarik altuenean 190 cm. edukiko ditu eta baxuenean 140 cin. Igerileku txikiena 3-4 urteko gaztetxoentzako izango da. Zortziko baten itxura izango du, hau da, erdialdean estuagoa izango da.

• **Zenbateko kostua izan dute?**

**100** milioi pasatxo inguruko kostua izan dute. Aire libreko igerilekuek mantenimendu gastu asko dituzte eta epe motzera ez dira ekonomikoki errentagarriak, bai ordea sozialki. Aisialdirako beste aukera bat ematea zen gure asmoa, bizi kalitatea gehitzeko modu bat da. Hondartzara joaten den jendeak izaten dituen arazoak eduki genituen kontutan, hau da, autoa aparkatzeko arazoak, trenetako aglomerazioak, e.a. Baita lanetik berandu irten eta hondartza joaterik ez duen jendeari begira ere.

Zer erabilera emateko sortuak **izan dira?**

Aisialdirako sortuak edo pentsatuak izan dira. Igerian egiteko kiroldegiko igerilekua dago. Gainera inguruko aire libreko igerilekuetan frogatu ahal izan dute jendea ez dela igerian egitera joaten.

## Inkisicion eta Paston Pila taldeek jokatuko dute futhol 7 txapelketako finala bihar, hilak 21, Mintxetan



*Argazkian, Inkisicion talde elgoibartarra.*

Inkisicion talde elgoibartarrak eta Paston Pila talde debarrak jokatuko dute IV. Bailarako Futbol 7 Txapelketako finala bihar, hilak 21, Mintxetan. Inkisicion taldeak 5 eta 1 irabazi zion Mazzantini taldeari eta Paston Pilak, berriz, 6 eta 1 irabazi zion CSK Awayr taldeari. 3. Eta 4. postua erabakiko dituen partidua 11:00etan hasiko da eta final handia 12:00etan

## Jon Zubiarurre izan zen lehen elgolba- Mutriku-Deba igeri trabesian

asa den domekan, hilaren 15ean, **Pjokatu** zen Elgoibarko Urgazi Triatloi Taldeak urtero antolatzen duen Mutriku-Deba Igeri trabesia. Hasiera eta helmuga urtero txandatzen dituzte eta aurten Mutrikun hasi eta Deban bukatzea tokatzen zen. Mutrikuko kaiatik 41 igerilari atera ziren goizeko 10:30ean eta Debako hondartzara 39 partehartzaile ailegatu ziren. Hondartzaratzen lehena Jeronimo Esnal zarauztarra izan zen. Denbora ikusgarria egin zuen Jeronimok (39'26''), bigarren sailkatuari, Amaia Odriozola (44'20') mutrikuar gazteari, ia 5 minutuko aldea atera zion. Hirugarren postuan Manuel Aranguren zarauztarra sailkatu zen (46'). Elgoibartarrilc onena Iori Zubiaurre izan zen seigarren postuan. Ionek 49 minutu behar izan zituen Mutrikutik Debara igerian egiteko. Dena den, partehartzaile guztiek jaso zuten domina eta kamiseta bana.



*Argazkian Jeronimo Esnal zarauztarra, probaren irabazlea. Erdian, Amaia Odriozola 14 urteko gaztea, bigarren geratu zen mutrikuarra.*

**ELGOIBARTARREN** SAILKAPENA

1-Ion Zubiaurre 49"
2-Fernando Etxeberria 52"19"
3-Amaia Revert 53"20"
4-Jesus Mari Agirretxe 55"
5-Borja Uriarte 55"
6-Jose Angel Agirre 1 h 02'42"
7-Iñaki Konde 1 h 08"26""

## Sigmako Pilota Txapelketaren finalak uztailaren 25ean jokatuko dira

nsolak eta Agirrebeñak osatutako bikoteak Urtubiaren eta Balzolaren aurka jokatuko du Sigmako Pilota Txapelketaren lehen mailako finala. Bigarren mailako finalera berriz, Osoro eta Garate alde batetik, eta Armaxio eta Ibarluzea bestetik, ailegatu dira. Finalak uztailaren 25ean, Santiago egunean, jokatuko dira Sigmako frontoian. Infantil mailako finalak emango dio hasiera jaialdiari goizeko 10:30ean. Txurruka eta Mugerzak Portu eta Larrañagaren aurka jokatuko dute infantil mailako partidua. Ondoren nagusien mailako • partiduak jokatuko dira. Antolatzaileek jakinarazi digutenez partiduak ikusten hurbiltzen diren guztientzako luntxa izango da.



## EMAITZAK

**Futbol 7**

IV. Bailarako Txapelketa
Ke+Da 2 - Mazzantini **4**
Artetxe 1- Paston Pila **4**
CSKA Awayr **3 -Grasshopper** 1
Inkision **5-** Los Kukas 1

## AGENDA

**J'utbol 7,** Mintxetan

Larunhata, 21
11:00 Mauantini-CSK Awayr **(3. eta 4. postua)**
**12:00** Inkisicion-Paston Pila **(finala)**

**:Esku Pilota,** Sigmako Frontoian

Asteazkena, **25**
10:30 Txurruka/Mugerza - Portu/Larrañaga
11:00 Garate/Osoro - Armaxio/lbarluzea
12:00 Ansola/Agirrebeha - Urtubia/Balzola

## Iidgo Lariz txirrindulariak bigarren postuan amaitu du Bizkaiko Bira

Gipuzkoako Itzulian egin zuen moduan, Iñigo Lariz txirrindulari elgoibartarrak, bigarren postuan amaitu zuen ostiralean (uztailak 13) hasi eta astelehenean amaitu zen Bizkaiko Bira. Lehen eta azken etapa irabazi zituen "Ciclos Iturriaga"ko txirrindulariak, baina ez zen nahikoa izan sailkapen nagusia eskuratzeko. Jon Arana irabazlearengandik 6 segundu eskasera amaitu zuen. Belauniko minen erruz zalantzan hasi zuen jubenil mailako denboraldia Ifiigok, baina azken bi Iasterketetan bere maila erakusteko gai izan da.



# merkatu txikia

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Debabarreneko enpresa baterako **elektrikaria behar da. ERREF: 57195/1.**

Debabarreneko enpresa baterako **makina eremintaren mantenu elektrikorako arduraduno** behar da. **ERREf: 57176/2,**

Eibarko enpresa bateroko **klinikako laguntzailea** behar da. **ERREF: 57175/4.**

Debabarreneko enpresa baterako **segurtasunerako arduraduna** behar da. **ERREF: 56128/4.**

Debabarrenan **gasolindegiko langilea** behor da. **ERREF: 54578/4.**

Durangaideko enpresa baterako **"rektifikatzailea"** behar da. **ERREF: 54587/3.**

Azkoitiko enpresa baterako **bulego teknikorako arduraduna** behor da. **ERREF: 56779/2.**

Debogoienako enpresa buterako **4 aholkulari komertzial** behar dira. **ERREF: 53354/2.**

Urola kostako enpresa baterako **hortz protesigilea** behar da. **ERREF: 56908/4.**

Urola kostako enpresa batek Zumaiako hondartzan lan egiteko **erizaino** behar du. **ERREF: 57341/2.**

Urola kostako enpresa batek Orioko kondorizan lan egiteko **bi erizain** behar **ERREF: 57342/2.**

Debagoienako enpresa baterako **garbitzailea** behar da. **ERREF: 57528/1.**

Hauragoi moduan sortzea eskatu nahi baduzu **901222901** lelefonora dedu edo 'Langork Elgobarren dituen zentru lagunizaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Instirutuct (Alberto liurricastillo) **943 74 80 19** edo **1MH** (Ekatiz Mendizabal1 **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

4 20 urteko mutda eskaintzen da tailerrean edo antzeko lanen batean aritzeko. v **943 75 62 37/696 03 87 35**

*Emakumeak bere burua eskaintzen du Elgoibarren publizifatea buzoneatzeko. -ar **943 74 39 11**

• Senar-emazteak prest garbiketa indusfriala egiteko edo lantegietako jangeletan sukaldari eta sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. Tr **669 22 35 27.**

• Emakumemk bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Jusia. le **943 74 35 05.**

• Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna eskaintzen da. Esperientzarekin eta informeekin. Iet **696 27 76 19,**

4 16 urteka bi neska eskaintzen dira udan lan egiteko: propaganda banatzeko, umeak zaintzeko... (Ainhoa). **a: 943 74 24 67/653 74 57 93**

### ESKAINTZA

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tr **667 87 99 57**

• Irailetik aurrera bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska edo emakumea behar da. Tr **943 74 09 42**

• Irailetik aurrera ume bat zaintzeko emakumea behar da. Autoarekin. v **943 74 09 45**

• Emakumea behar dut irailetik aurrera etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. **tr 943 74 44 88. (19:00tik-** 22;00ra).

• Neska edo emakume euskalduna behar da haurrak zaintzeko eta efxeko lanak egiteko. **-re 659 14 45 88.**

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da Mendaron. **if 943 75 51 47.** (Gauez deitu).

• Abuztuan goizez 3 ordu lan egiteko, astelehenetik ostiralera, sukaldaria behar da Jubilatuen Etxecm. **tr 943 74 05 26.**

*Mutila behar da tabernan orduka lan egiteko. Beste lankide batzuekin txandakatuz. Astegunetan, arrahsaldez, eta asteburuetan ere lan egin beharko luke. tr **943 74 28 97.**

*Irailerm arratsaldeetan 2 eta 5 urteko umeak zaintzeko emakumea behor da. **v 653 73 90 65.**

## Salerosketak

• Citroen ZX 1.600i salgai. egoera onean zr **943 74 23 00**

♦ 90eko bi ohe, armairu handi bat eta bi "mesilld salgoi, Ohe bal estreinatu gabe dago. Prezio onean. Tr **943 74 24 57.** (Eguerdian edo iluntzean).

• Seat Ibiza CLX 1.5 salgai, Aire egokituarekin. 90 cv. **tr 658 71 44 36.**

• Motorra salgai. Daelin markakoa. 125 cc. Ekonomikoa. Kaskoak eta kaxa oparitzen ditut, 669 22 35 27.

• Bigarren eskuko telebista erosiko genuke. Prezio onean, **tr 627 29 78 46.** (17:00fik- 20:00m).

*Duela hifabete erositako harnster bikotea salgai. **tr 627 29 78 46. (17:00tik-** 20:00ra).

• "Monobolumena" salgai. Fiat TD.1.9. 28.000 Krn.v **943 20 04 17.**

♦ Kanadiar denda salgai. 6 plaza ditu. **:e 943 74 37 09.** (20:00tik-22100ra).

## Eutebizitzak

Apartamentua alokatzen da Alcoceberren abuzman. Hamalosf eguneroko edo hilabete osorako. 71* **943 17 40 83**

• Donostian etxe bat erosi edo alokatuko nuke udan. **tr 943 75 51 47**

• Etxea alokatuko nuke. Altzari eta guzil dago eta berri-berria da. Ubitar-3an. **Tr 943 74 24 42.**

*Eixea salgai Mendaron, 260 m2 eta bi plazatako garajea edukitzeko aukera. 1.solairuan: egongela, bainua eta sukaldea. 2. solairuan: 5 logela eta bainua. 3.solairuan: terraza eta behean, lorategi ederra. ℩1 **649 65 56 35.**

♦ Ehea alokatzen dut Mendaron: 3 logela, komuna eta egongeka. Allzariekin. v **943 75 60 79.**

## Lokalak

.1,000 m2ko lokala cdokagai Elgoibarren, errepide generafaren erizean. Prezio interesgarria. zr **656 78 11 98**

• Komertziorako lokala saltzen dut Santa Ana kaleko 2an. **tr 943 74 12 83.**

## Bestelakoak

* Karitasek arropak jasotzen dítu urte guztian, abuztuan ezik, hileko lehenengo asteazkenean.

♦ Ekainaren 24an, San Lorentzoko sarreran rnobdia urdin bat galdu nuen. Aurkitu duenak udaletxera eraman dezala edo dei dezala telefono honetara. **n: 943743061.**

• Hifaren 9an udaletxeko arkupetan Game boy jokoa galdu nuen. **-a 943 74 12 47.**

• Kortinak, butakak edo antzerakoak soberan izanez gero, jor zaitez Gazieixekoekin harremanetan. Trasladoaz geu arcluratuko gara, **a- 943 74 35 72.**

• Erlojua galdu dut Ermuaranbide eta King-Kongeko autobus geltokiaren artean. Aurkitu duenak eraman dezala mesedez Udaltzaingora.

Txiki Egunean, Edu Arrillaga argazkilariari karreteak errekora erori zikaizkionean, hauekjaso eta bueltatu zizkion neskarekin kontalduan jartzea nahi du Eduk, noklait eskertzeko. **tr 943 58 40 40.**

• Enpresa edo bulegoren baten ordenaclareak aldatu badituzu eta zaharrekin zer egin ez baciakizu, guk, BARRENen, Eartuko ditugu. 17 **943 74 41 12.**

## Garajeak

• Garajea alokatzen dut pista belfzean. is **943 74 00 70** (gauez deitu).

# Agurrak

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



• Zorionak!!!

• Zorionak Ander **Polori,** hilaren 18an 13 urte bete zenituelako. Gurasoen eta arreba Loinazen partez.



• **Leire,** espero ez zenuen eguna heldu da!!! Nahiz eta benetako proba irailaren l5ean izan. Glu, glu, glu,.. Presta zaitez. Koadrilakoen partez.



• Zorionak **Irati Moiorari,** hilaren 27an lehen urtea beteko duelako. Egoitzen eta familiaIcoen partez.



• Haunditzen, haunditzen... Neska haundi ein zera konturatu gabe. Beti bezain politxa jarraitxu. Zorionak **Garazi eia** muxu haundi bat. Etxekuak.



• Zorionak **Trinidad Liberali, hilaren 24an** urteak beteko dihJelako. Familiakoen partez, ondo pasa eguna!



• **Zorionak Aintzane, bihar, hilak 21, 8 urte** beteko dituzukko. Familiakoen partez.



• Zorionak **Jone,** 5 urte bete dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak **amama Arrateri,** hilaren 30ean urteak beteko dituelako. Familiakoen eta bereziki Egoitz, Iñigo eta hatiren partez.



♦ **Zo** ionak Andrea, hilaren 22an **2** urtetxo beteko dituzulako. Muxu handi-handi bai familiakoen partez.



• Zorionak **Ainhoari,** hilaren 2on 12 urte bete ziluelako. Familiakoen eta lagunen partez,



• Zorionak! **I6an** 16 urte bete zenituelako. lagunen partez.



• Zorionak **Igor!** Uztailaren 22an lau urte beteko dituzu. Aupa mutil haundil Ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat Familiakoen Anaren eta bereziki Juneren pariez.



• Zorionak **Beñat Arriolari,** hilaren 27an 8 urte beteko dituelako. Familiakoen eta Jokinen partez muxu handi bat.



• Zorionak **Nora** 'ranita", hilaren **23an urtetxo** bat beteko duzulako. Muxu pira bat familiakoen eta Jonen partez.



• Zorionak Aitor, uztailaren 21ean 10 urte beteko dituzulako. Familiakoen, Unai, lon eta Iratiren partez.



• Aupa **Igor.** Zorionak! Azkenean bete dituzu 15 urte. Ondo pasa oporrak. Lagun baten partez.



• Zorionak Patxi eta hilaren 21ean **zuen** ezkontza eguna delako. Familiak egun zoriontsua opa dizue. Muxu handi bat.



• Aupa **bikote.** Ez da urduri jartzeko, baina egun bat bakarrik gelditzen zaizue. Egun ahoztezina pasatzea espero dugu. Zorionak koadrilakoen partez.



♦ Zorionak **Aitor aita eta semeari,** datorren uztailaren 24an eta 27an urtebetetze eguna duzuelako. Ondo pasatu eta aupa mutil haundi! 4 urte dira jadanik. Muxu handi bat etxekoen, Asierren eia amaren partez.



Berandu baina segunr. Guk ondo pasatu genuen zuen ezkontzan eta zuek ere bidaian disfrutatuka zenutelakoan gaude. Zorionak koadrilakoen partez.




# agenda

## 20 BARIXAKUA
22:30 **AIRE LIBREKO ZINEA**
"Torrente 2"

## 21 ZAPATUA
22:30 **AIRE LIBREKO ZINEA**
"Druidas"

## 22 DOMEKIA
9:30 **ARTZAI TXAKUR ALEMANIARREN TXAPELKETA**
Mintxetan

## 24 MARTITZENA
22:30 **ELGOIBARK0 NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA**
Euskadi, Burundi eta Eslobakiako taldeekin.
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea:
Haritz Euskal Dantzari Taldea

## 25 EGUAZTENA
**SARGOATEKO ERROMERIA**
11:30 **Meza**
12:00 **Salda eta txorizoa**
12:30 **Bertsolariak (Ziarda eta Meabe) eta trikitilariak**
14:00 **Erromeriaren amaiera**

## 27 BARIXAKUA
22:30 **AIRE LIBREKO ZINEA**
"Lfinite vertical"

## 28 ZAPATUA
**22:30 AIRE LIBREKO ZINEA**
"Chocolat"

## 29 DOMEKIA
22:30 **AIRE LIBREKO ZINEA**
**"South** Park"

## 30 ASTELEHENA
22:30 **AIRE LIBREKO ZINEA**
"La Comunidad"



## "Torrente 2: Mision en Marbella"
**Zuzendaria: Santiago Segura.**
**Antzezleak: Santiago Segura, Gabino Diego, Tony Leblane.**
Torremolinosen osteratxoa egin ostean, Marbellan finkatuko da J.Luis Torrente polizia arrazista, alkoholikoa, gizatxarra eta Atletico de Madrid taldeko jarraitzailea. Marbella hirian, gustuko gauzetan arituko da Torrente; herritarrak defendatzen, justizia betearazten eta inuzenteak engainatzen. Arerio gogorra atera zaio, ordea, Spinelli arma trafikatzailea, alegia. Honek, 2.000 milioi pezeta eman ezean hiria suntsituko duen rnehatxua egingo du. Marbella salba dezakeen bakarra Torrente da. Santiago Seguraren azken filme honetan, telebista, zine eta modeloen munduko hainbat pertsonaje ezagunek hartu dute parte.:

# FIPw' zine

KARTELDEGIA

**LGOIBAR Ilerriko Antzokia**

**"Torrenle 2"**
Barixakua: 22:30
**"Los druidas"**
Zapatua: 22:30

4g

**" per** iish"
Barixakua: 19:30-21:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domekia: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: 19:30-21:15
Eguaztena: *19:30-*22:15

**"Planes de hoda"**
Barixakua: 19:30-22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domekia: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-*22:15

**"El diario de Bridged Jones"**
Barixakua: 22:30
Zapatua: 22:30
Domekia: 19:30-22:15
Astelehena: 19:30
"Ei emperador y sus **locuras"**
Domekia: 19:30-22:15
Astelehena: 19:30
Eguaztena: 19:(81

*Ikuslearen eguna

## Sallobenteko

**ABUZTUAK 9, eguena**
18:00 Kanpai jotzea eta txapligoak.
18:30 Errosarioa eta meza auzoan hildakoen alde.
22:30 Bolo saioak eta erromeria

**ABUZTUAK 10, harixakua**
SALLOBENTE EGIJNA
11:00 Meza Nagusia.
Ondoren, aurreskua
13:00 Pilota partiduak
22:30 Bolo saioak eta erromeria

**ABUZTUAK 11, zapatua**
17:00 Haurrentzako jolasak eta zezenak.
19:00 Txokolatada haurrentzat.
**19:30** Emakumeentzako bolo saioa.
22:30 Erromeria
Ondoren, bolo saioak

**ABUZTUAK 12, domekia**
16:00 Plater puskaketa herrikoia.
22:00 Bolo saioak.
22:30 Gaupasa
24:00 Bolo Txapelketa.

**ABUZTUAK 13, astelehena**
**11:00** Meza
Ondoren, salda eta txorizoa.
Jarraian, bertsolariak:
12:30 Zaldi lasterketa
14:30 Lagunarteko bazkaria.
18:00 Herri kirolak
Ondoren, zezenak
22:30 Bolo saioak.
23:00 Erromeria

## San Rokeko

Z1

**ABUZTUAK 15, asteazkena**
**17:00** Kanpai jotzea eta txupinazoa.
**20:00** Errosario Santua.
**20:30** Afaria Ainhoa Agirreazaldegi eta Peñagarikano bertsolariekin, tarteka Aloñaren eta Leireren saioak.

**ABUZTUAK 16, eguena**
8:00 Txapligoak eta txupinazoa.
11:00 Meza Nagusia.
Jarraian: Haritz Euskal Dantzari Taldearen dantza saioa.
Ondoren, herri kirol saioa Mugerza anaiekin eta Mintxetarekin.
**17:00** Umeen jolasak ustekabearekin
**Ondoren,** Zezentxoak eta zalditxoak
**23:00** Demaseko erromeria Ansoregi eta Larrañagarekin.
1:00 Bolo saioak
1 .saria: 15.000 pta., 2.saria: 10.000 pta.
3.saria: 8.000 pta.

**ABUZTUAK 17, barixakua**
**8:00** Txapliguak eta txupinazoa
11:00 Bailarako hildakoen aldeko meza
**Jarraian** Mountain Bike UII. Sari Nagusia
1.saria: 6.000 pta., 2.saria: 4.000 pta., 3.saria: 3.000 pta.
**14:00** Anaiarteko bazkaria
**18:00** Herri kirol saioa.
**Jarraian,** zezentxoak eta zalditxoak.
**22:00** Erromeria gardoki aita-alabekin goizaldera arte.
1:00 Janariz eta edariz betetako karretilaren zozketa.

## ThAPEIKETA

Artzain txakur alentaniarren txapelketa

Artzain txakur onena aukeratzeko txapelketa izango da domekan, uztailaren 22an, Mintxetako futbol zelaian. Euskal Herrian egingo den era honetako txapelketa bakarra izango da. Epaile lanetan Sens Becker Olsen jauna izango da, hain zuzen ere, Espainiako Txapelketan izango den epaile berbera. Beraz, partehartzaileek beraien txakurrek Espainiako Txapelketan dituzten aukerak jakiteko modua izango dute. Txakurrik onena aukeratzeko kontuan hartzen dena animaliaren morfologia izaten da, hau da, buruaren itxura, bizkarra eta hezurren egitura, altuera eta baita ibiltzeko era ere. Antolatzaileek 80 txakur inguru espero dituzte. Goizeko 9:30ean hasiko da txapelketa eta eguerdiko 14.00ak inguruan amaituko da.



# erretratu zaharra

2001-VII-20



Aste honetako erretratu zaharra **Fernando Azpiazuk** laga digu. 1966ko uztailaren 25ean ateratakoa da, Sigma auzoko frontoian, bertako Santiago jaietan. Gaur egun, dakizuen bezala, pilota txapelketa bat egiten da San Lorentzo, San Migel eta Sigmako pilotarien artean baina garai hartan ez zegoen horrelakorik eta kaletik eraman zituzten zale batzuk txapelketa jokatzera. A zer nolako ikuskizuna montatu zuten gainera! Esan digutenez, partidua oso estua izan zen, 21 tantura berdinduta joan ziren eta luzatzearren 30era ipini zuten. 29na berdinduta egon ondoren, gorriek ( gerrikodunek) 30 eta 29 irabazi zuten.

Hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: **Fernando Azpiazu, Juan Jose San Martin** (aurrelaria) **(t)., Pedro Agirregomezkorta** (gerrikoarekin, atzelaria), **Ignacio Garate** (atzelaria), **Alberto Ajuria** (aurrelaria) eta **German Uriguen "Etxegifia"(t).**




SANTANA
JAIXAK 2001
Uztailaren 24tik 29ra
Sokamuturra
Kalejira,Tanborrada
Herri kirolak...
a. 41%
w5u artifrzllak,
11'; -') :11:›lay-back,_Benji Jumpingy
4
Paella jana...
er2
MENDARO
1983
Zatoz Mendaroko jaixetara,
ez zara damutuko!

# ELGOIBARKO NAZIOARTEKO
# XV. FOLKLORE JAIALDIA

"Won

## EUSKADI - BURUNDI - ESLOBAKIA



## UZTAILAK 24, ASTEARTEA
## GAUEKO 10:30ean



## OLAIZAGA KIROLDEGIAN

Musika etc: Dardza
Dclal Funclazioe

Alclundia

SAREA
Sciren

Elgoiborko
Kiral Patroncitua

TXANKAKUA
Txankakua

Hnitz
Eusktil Donlzari Talclud